

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrek, **2025eko uztailaren 17an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

"2.-: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdira aurkeztutako eskaeren lehenengo ebazpena onartzea. . (esp.: 2025ZDK00016)

Alkatearen 2025eko uztailaren 14ko proposamenak honela dio:

" Unai Kortabarria jaunak (Sozioekonomia teknikariak eta batzordeko idazkariak) uztailaren 3an egindako txostenean (CSV zkia: ESKU7ff85e0d-ffe3-4bed-9a62-67eea3310e84) honako PROPOSAMENA egin du

Espediente zk.: 2025ZDK00016

Interesduna: OÑATIKO UDALA

Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak

Sarrera erregistroa: 2526 / 2647 / 3025 / 3054 / 3121 / 3824 / 3894

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2022ko apirilaren 11n, 69. Zb.)

Bigarrena.- Oñatiko Udalak, 2025eko martxoaren 27an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zuen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2025eko apirilaren 9an, 68. Zb.)

Hirugarrena.- Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia kontuan izanda 2526, 2647, 3035, 3054, 3121, 3824 eta 3894 erregistro zenbakiak dituzten eskaerak aztertu dira.

Gertakarien balorazioa.

Lehenengoa.- Aipatutako eskaerak aztertu ondoren, jarraian zerrendatzen dira onartutako eskaerak eta bakoitzari dagokion dirulaguntza zenbatekoa:

ESKU4b76a82d-1350-41f8-ba52-290fbdbdb8c7

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZK.	DIRULAGUNTZA		
			SUST. LANPOSTUA K	ALOKAIRUA	GUZTIRA
UXUE AGIRRE BIKUÑA	***4853*	2025ZDKO0016/2526	1.950€	Ez dagokio	1.950€
AMAIA SAMANIEGO ARIJA	***4574*	2025ZDKO0016/2578	1.950€	2.500€ *Justifikatzek e	4.450 €
VOLODYMIYR KASIAN	***1142*	2025ZDKO0016/3025	1.500€	Ez dagokio	1.500 €
NASIR IQBAL	***0438*	2025ZDKO0016/3054	Ez dagokio	2.500€ *Justifikatzek e	2.500 €
APOLINA GERMOSEN DEAZA	***3152*	2025ZDKO0016/3121	1.950€	Ez dagokio	1.950€
ANA MARCIA DE SOUZA CASTRO	***3393*	2025ZDKO0016/3824	1.950€	Ez dagokio	1.950€
ARSHAD MAHMOOD ASLAM BEGUM	***5191*	2025ZDKO0016/3894	1.500€	2.500€	4.000€

*Negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntzaren ordainketa alokairu gastuak justifikatu ostean egingo da, fakturak eta ordainagiriak aurkeztu eta laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean. Zuriketa aurkezteko epea 2026ko urtarilaren 9an amaituko da.

Bigarrena.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1000.480.241.01.01 2025 diru atalean.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ostean, ondorengo **erabaki proposamena** egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.- Goian aipatutako Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza eskaerak onartzea eta 18.200€ko gastua baimentzea 1000.480.241.01.01 2025 (389) diru partidaren kontura.

Bigarrena.- Jarraian zerrendatzen diren onuradunei ordainketa hauek agintzea:

ESKATZAILEA	IFZ	DIRULAGUNTZA
UXUE AGIRRE BIKUÑA	***4853**	1.950€
AMAIA SAMANIEGO ARIJA	***4574**	1.950€
VOLODYMIYR KASIAN	***1142**	1.500€
APOLINA GERMOSEN DEAZA	***3152**	1.950€
ANA MARCIA DE SOUZA CASTRO	***3393**	1.950€
ARSHAD MAHMOOD ASLAM BEGUM	***5191**	4.000€

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://oñati.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena. - Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko go-bernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025ZDKO0016-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)